

PRENTSA OHARRA / 2024-03-05

Euskadiko ikastetxeetako Batxilergoko 1. mailako 1.000 ikasle inguruk Euskadiko Parke Teknologikoko campusak “hartuko” dituzte martxoaren 12an, enprekin batera profil berrietara egokitutako curriculumaren garapenean aurrera egiteko

- EAEko batxilergoko 1. mailako 20 ikastetxetako gazteak ekimenean parte hartzen duten 34 enpresa teknologikoetara egokitutako benetako CVa sortzeko erronkaren inguruan aritu dira lanean azken asteetan. Martxoaren 12an jakinaraziko dira erronkaren proposamen irabazleak.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Innobasqueren STEAM Euskadi zigiluarekin aintzatetsitako LH/Parke ekimenak bederatzigarren edizioa beteko du aurten, enpresa teknologikoen eta batxilergoko ikasleen artean zubiak eraikitzen jarraitzeko helburuarekin.

2024ko martxoaren 5a. Euskadiko Parke Teknologikoak LH/Parke ekimenaren bederatzigarren edizioa hartuko du datorren asteartean, martxoaren 12an. Bertan, Euskadiko Lanbide Heziketako ikastetxeen bi elkarre nagusiekin, HETELekin eta IkaSLanekin, aritu da elkarlanean. Euskadiko 20 ikastetxetako 1.000 ikasle inguru bilduko dira Zamudio/Derio, Donostia eta Vitoia-Gasteiz Campusetan, enpresa teknologikoen errealitatea ezagutzeko eta bi kolektiboen arteko harreman zuzena sustatzeko.

Jardunaldiaren lehen partean, bokazio zientifiko-teknologikoei eta LH enpresa teknologikoekin konektatzearen garrantziari buruzko hitzaldiak eta esperientziak izango dira protagonista. Lehen saio horretan, ikastetxeei planteatutako "erronkaren" proposamen irabazlea ere ezagutaraziko da. Aurten ekimenean parte hartzen duten eta Parkean ezarrita dauden 34 enpresetako baten benetako beharretara egokitutako Curriculum Vitae bat egin behar zuten.

Aurreko asteetan, parte hartu duten enpresetako baten beharrak aztertu dituen berariazko unitate didaktiko bat lantzen aritu dira ikasleak ikastetxe bakoitzean, euren CV proposamena egiteko.

Bigarren parteak, ikasleek CVaren erronka landu duten enpresa bakoitza bisitatuko dute, konpainiaren errealitatea eta proposamenen irismena bertatik bertara ezagutzeko xedez.

Enpresa eta ikastetxe hauek hartzen dute parte:

BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
ENPRESAK	IKASTETXEAK	ENPRESAK	IKASTETXEAK	ENPRESAK	IKASTETXEAK
CFAA-CENTRO FABRICACIÓN AVANZADA AERONAÚTICA	San Luis Ikastetxea	IBERMÁTICA	Nazaret Zentroa	AEG POWER SOLUTIONS IBERICA	Urkide
CONSORCIO ESS BILBAO	Calasancio Ikastetxea	EITB MEDIA	Ugle	AJL OPHTHALMICS	Corazonistas
VODAFONE ESPAÑA, S.A. – 2022	San Viator	TECNALIA	La Salle Berrozpe	LEK INGENIERIA Y SERVICIOS	Egibide
INGETEAM, S.A.	Somorrostro	VIRALGEN	Lizardi BHI	OPTIMUS 3D	Zaraobe
ITELAZPI, S.A.	Txorierri	CIDETEC	Talaiai BHI	AVS NEXT	
SISTEPLANT, S.A.	Ies Juan Antonio Zunzunegui Bhi	VIVEBIO	Antigua Luberri BHI	BASQUEVOLT	
IBERMÁTICA, S.A	Txorierri Institutua	TSS-SPYRO	Zubiri Manteo BHI	BIC ARABA	
ZIV APLICACIONES Y TECNOLOGÍA, S.L.	Ies Zorrotza Bhi	GEMINYS		CTL PACK (TUBOPLAST)	
BIOLAN MICROBIOSENSORES, S.L.	Ies Axular B Bhi	CIC BIOMAGUNE		GUASCOR	
TECNALIA RESEARCH & INNOVATION		BCBL		DORLET	
				SPC	
				TECNALIA RESEARCH & INNOVATION	
				ALESTIS AEROSPACE	

LH/Parke ekimena

LH/Parke, Lanbide Heziketako Ikaslan eta HETEL elkarteek eta Euskadiko Teknologia Parkeak antolatutako ekimena da, eta Lanbide Heziketaren ikuspegitik ikasleen artean lanbide zientifiko-teknologikoekiko interesa piztea du helburu. Horretarako, Batxilergoko lehen mailako gazteei zuzendutako jardueren ibilbide bat antolatzen da.

Orain arte 6.300 ikasle baino gehiagoren parte hartzea izan duen programa honen 9. Edizioa 2024an ari da gauzatzen. Aurtengo edizioan 980 ikaslek (420 Bizkaikoak, 350 Gipuzkoakoak eta 210 Arabakoak), 20 ikastetxek eta Euskadiko Parke Teknologikoko 34 enpresak hartu dute parte.

LH/Parke ekimenak, bokazio zientifiko-teknologikoen esparruan bikaintasun-jardunbideak aintzatesteko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Innobasquek antolatutako STEAM Euskadi Sarien bigarren edizioan lortutako STEAM Euskadi zigilua du. Bigarren edizio hartan finalista izan zen.

Informazio gehiago:

Euskadiko Parke Teknologikoa

Prentsa Saila

prentsa@parke.eus

T 94 403 95 00